

euskararen arrazoiak

JOXE AZURMENDI

Politikoak euskararen alde badira, zergatik nahi dute euskara eta zer nahi dute euskararekin?

Zer den euskara

Labur-bilduma simple batean honelatsu bilduko nituzke prentsan agertuz joan diren politikoen arrazoiak euskararen alde:

1. Euskara den aberastasun kulturalengatik: hizkuntza beregarria eta hori dena.

2. Euskal kulturaren eta kulturarentzat duen inportantziagatik, haren «valor de vehiculo de la cultura» batez ere. Kulturarik ez hizkuntza gabe, euskal kulturarik ez euskara gabe.

3. Bera delako gure nortasun nazionalaren oinarri eta zutabe sendoena.

Zertarako den

1. Gure kultura geure bezala indartzeko.

2. Gure nortasuna gordezko, identitate nazionala.

Nolakoa den

Asko azpimarkatu da euskararen tresna edo medio izatea. 55/60 aldera K. Mitxelenak eta Txillardegik azpimarkatzen zuten bezala, orduko giro polemikoa. Hori dela eta, 1. euskara eskolatan telebistan, etab. sartu beharra azaldu da, 2. euskara modernotu eta, 3. Euskadi birreuskaltu beharra.

Bestela euskarak ezingo luke kultura indartzeko balio, ezta identitate nazionala gordezko ere.



Horiek izan dira euskararen aldeko kanpaina honetan ikusi diren arrazoiak nagusiak, nik uste.

Defentsiban

Ikusten denez, orain urte batzuk euskaltzaleek («kulturalistek») erabili ohi zituzten arrazoi moduak dira. Eta, haiek orduan bezalaxe, politikoak beren arrazoiotan oraindik defentsiba postura batetik eta ia defentsiba hutsean ari direla arrazontzen, esan behar. Euskara bera defentsiban dago gehienbat, egia hori da, ikastolak eta adierazten duten ofentsiba koskorra oraindik ez bait da ezer asko. Eta, ez noa ni politikoei nola argumentatzea komeni den esatera, baina arrazoiak piska bat pobreak dirudite. Politikoak baino kulturalagoak ere bai.

if040 Nabar-nabarmen karaktere defentsiboa: euskarak ja-

san duen zapalkuntza aipatzen da etengabe. «lengua amenazada», etab. Euskara «salbatzean» dirudi asmo guztia. Edo berdin: «y que no se argumente con el desfase del idioma para tareas intelectuales». Shock Unamuno, oraindik ere.

Erantsi beharra dago: KA-Sen alternatiba textuan ere (aurreragoko batetan aipatu genuen) defentsiba huts-hutsekoa da planteamenduaren jitea. PNVe 77an argitaratua emandako Agirian ere kontsiderazio defentsiboak nagusi: Agiri honetan or.21, 49, 161, 167 eta 177 hur. tratatzen da euskararen arazoa.

Kulturalista

Arrazoiak guztietan kontsiderazio kulturalistek betetzen duten lekuaren zabal-haundiak harritzen du. Horrek dirudi inportanteena: Aitorren hizkuntza zaharra, etab., «único resto vivo idiomático en Occidente de la primitiva lengua de Europa, anterior a la invasión indoeuropea» (Deia, 19.10.80 Editorial) Eta: euskal kulturarik ez euskara gabe.

Eta zein gutxi desarroilatu diren beste arrazoi politikoago batzuk: identitate nazionalaren alderdia, esate baterako. Euskara naziogile. Eta kontextu politiko batetan hori. Parlamentu politiko batetan bertan.

Ez dakit, beharbada zuhurrago zen gauzak horrelaxe planteatzea, etsaiak alfer-alferrik ez xaxatzeko. Arazoa despolitizatu egin nahi izan da nolahi ere: «Naturalmente que el euskara tiene connotaciones políticas y contrarréplicas partidistas 2, idazten zuen aipatu Deia-ko Editorialak.